

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

440/2025 Foru Agindua, abenduaren 19koa. Onespena ematea 2026ko Basogintzarako Laguntza Planaren deialdirako laguntza eskaerak aurkezteko epea luzatzeari

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 8/2023 Foru Dekretuaren bidez, Basogintzarako Laguntzen Planaren oinarri arautzaileak onetsi ziren. Ondoren, Foru Gobernuaren Kontseiluaren azaroaren 18ko 693/2025 Erabakiaren bidez (2025eko azaroaren 21eko ALHAOn argitaratua), 2026ko basogintzarako laguntzen planaren deialdia onetsi zen, eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik, hau da, 2025eko azaroaren 22tik abenduaren 31ra arte.

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 18ko 693/2025 Erabakiaren hirugarren xedapenak ahalmena ematen dio Nekazaritzako diputatuari erabaki hori garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak hartzeko.

Sektoreko eragileek adierazi dute arazoak dituztela deialdi honetarako laguntza eskaerak prestatzeko, besteak beste, kontzejuetarako hauteskunderen ostean administrazio batzarretako ordezkariak aldatu direlako. Eskaerak aurkezteko epea oraindik amaitu ez denez, eskaerak aurkezteko epea luzatzea proposatzen da.

Nahitaezko txostenak aztertu ondoren, eta Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 18ko 693/2025 Erabakiaren hirugarren xedapenak emandako ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea urtarrilaren 20ra arte luzatzeari (egun hori barne) 2026ko Basogintzarako Laguntza Planaren deialdirako laguntza eskaerak aurkezteko epea.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 19a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA